

**EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN ETA
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN (BILBOKO HEZKUNTZA
FAKULTATEAREN BIDEZ) ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.**

Leioan, 2020ko irailaren 15ean.

Alde batetik, HABE, egoitza honako helbidean duena: Vitoria-Gasteiz, 3, 6º 20018, Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa IFZ: Q2040002-D. HABEren izenean eta ordezkari moduan, HABEko presidentea den Bingen Zupiria Gorostidi Kultura eta Hizkuntza Politika sailburu jauna.

Eta, bestetik, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (aurrerantzean, UPV/EHU), egoitza honako helbidean duena: Sarriena auzoa, z/g, Leioa 48940 (Bizkaia), eta IFZ 4818001-B. Unibertsitatearen izenean eta ordezkari moduan, José Luis Martín González jauna, UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordea, unibertsitatearen izenean eta ordezkari moduan arituko dena, UPV/EHUko errektoreak 2017ko urtarrilaren 25ean emaniko izendapen erabakiaren arabera eta UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren Funtzionamenduari buruzko Arautegiko 29.1 artikuluan ezartzen dena betez (2017eko otsailaren 3eko EHAA, 24 zk.).

Alde hauek, zein bere erakundearen izenean eta ordezkari aritzen dira, jarduteko eta elkar behartzeko gaitasun juridiko nahikoa aitortzen diote elkarri, eta

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa. UPV/EHU irakaskuntza, ikerkuntza eta garapen zientifiko eta teknologikoko jarduerak burutzen dituen eta izaera sektore-anitzekoa eta diziplina-askotakoa duen hezkuntza eta ikerkuntza entitatea dela.

Bigarren. HABE Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko atal bat dela eta HABEren helburu nagusia da euskal hiztunak sortzea eta horretarako helduen euskalduntzerako beharrezkoak diren aukerak eta baliabideak eskaintzea.

Baliabide horien artean HABEren plan curricularra osatzen duen HEOCaren egituraren araberrako ahozko zein idatzizko testuak sortzeak, aztertzeak eta ebaluatzeak leku jakina izateaz gainera, berebiziko garrantzia du.

Euskarazko testu mailakatu horien sorrera eta lanketa HABEren teknikarien, euskaltegi-tako irakasleen zein euskara-ikasleen zeregina da, eragile bakoitzaren egitekoen batan.

Euskal Herriko Unibertsitateko Bilboko Hezkuntza Fakultateak euskara-ikasleen hizkuntzazko komunikagaitasun-maila ebaluatzeko tresna informatikoak landu eta egituratu nahi dituela adierazi dio HABEren zuzendaritzari.

Tresna informatiko hauek egoki lantzea helduen euskalduntzean diharduten eragileentzat aukera aparta izango litzateke: egitekoaren zuzentasunean, egokitasunean, koherentzian... irabazteaz gainera, zereginok modu objektiboago batean burutzeko aukera izango litzateke eta egitekoak gauzatzeko beharrezko denboraldia nabarmen murriztuko litzateke.

Horregatik, HABEren zuzendaritza honek Euskal Herriko Unibertsitateko Bilboko Hezkuntza Fakultateak aurkeztutako "Testuak euskaraz mailakatzeko datu-baseak eta erabilera jarraibideak" izenburua daraman egitasmoa ontzat emateaz gainera, egitasmo hori egoki eta zuzen aurrera eramateko, egitasmo horretan partaide izan nahi duela adierazi nahi du.

Egitasmo hori bete-betean HABEren egitekoen eskumen-eremukoa denez, HABEK egitasmoa aurrera eramango duten ikertzaileen esku jarriko ditu helburu nagusietara iristeko datu-baseak sortzeko beharrezko dituzten HABEren artxiboak:

1. HEOCa: HABEren plan curricularra. AGINDUA, 2015eko uztailaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarritzko Curriculum (HEOC) ezartzen duena. (EHAA-2015eko uztailak 31. 144 zk).
2. Azpimailak: EBAZPENA, 2015eko abuztuaren 3koa, HABEren zuzendari nagusiarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarritzko Curriculumaren mailen azpimailak zedarritu eta ikas-irakas prozesuen eraketa, jarraipena eta kudeaketa didaktikoaren jarraibideak ezartzen dituena. (EHAA- 2015eko abuztuak 20, 157 zk.).
3. Testu-ereduak: Idatzizko zein ahozko testu eredugarriak. HEOCari (2015) jarraipena emanez, HABEren Curriculum Garapen Atalak CURRICULUM-LANGAIK: TESTU-EREDUAK liburua argitaratu du. Bertan A1 mailatik C2 mailara bitarteko testu-ereduak eskaintzen dira. Testuok maila eta trebetasun bakoitzerako proposatzen diren testu eredugarriak dira; maila bakoitzaren adierazgarri direnak. Liburuan, guztira, 216 testu daude, eta baita CD bat ere, entzumenari eta mintzamenari dagozkien ahozko testuak biltzeko (108). Testuon helburua da euskararen irakas-ikasprozesuetan trebetasun hartzaile eta sortzaileak curriculum zehaztapenean gauzatzeko (proiektu kurrikularrak, unitate eta sekuentzia didaktikoak, jarduerak...) lagungarri izango diren lagin edo eredu -mota ezberdinak eskaintzea. Bilduma hau sortzerakoan, testuak errealak izateari ez ezik, maila bakoitzerako aproposak, motibagarriak, ebaluagarriak edota erabilgarriak izateari ere garrantzi handia eman zaio.
4. Gainera, formatu digitalean ere eskuragarri dago testu-bilduma hau IRAKASBIL atarian.

5. PRIMERAN testu-liburuak: A1, A2, B1 eta B2.1 mailatarakoak HABEk argitaratutakoak. Erreferentziazko liburuak aipatutako helburuetara iristeko.
6. IKASBIL atarian euskarazko ahozko zein idatzizko testu mailakatuak eskaintzen dira HEOCaren arabera sailkatuak. Artxibo hauetan ere datu-base sendoak aurki daitezke.
7. HABEren egiaztatzegintzak sortzen dituen komunikagaitasuna ebaluatzeko azterketariek egin probak zuzenduta eta kalifikatuta.

Datu-base hauek modu egokian erabilia eta datuen babeserako araudia jarraituz, oso baliagarriak izan daitezke Bilboko Hezkuntza Fakultateko ikasleen hizkuntza-mailaren proba objektibo batzuk diseinatzeko eta hasierako diagnosi bat egiteko, Hizkuntzaren Prozesamendu teknikak erabilia.

Beti ere helburu nagusiak beharko luke euskarazko testu ahozko zein idatzizkoak HABEren oinarri eta irizpideen baitan mailakatzea eta sailkatzea, aurreko puntuan zehaztutako datu-base landu eta egituratuak oinarri hartuz.

Hirugarren. Erakundeen aurreko lankidetzak, beharrak eta arloaren egoera.

Mikel Iruskieta UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasle doktoreak eta UPV/EHUko IXA Taldeko kideak koordinatuko du. Dagoeneko IXA Taldea Eusko Jaurlaritzako zenbait sailekin lankidetzan ari da, besteak beste, honako lan hauetan:

1. OSAKIDETZArekin elkarlanean honako proiektuetan:

- i) Osakidetza eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko erreferentziazko terminologia klinikoa euskarara itzultzeko. EHAA 236-5305 (Argitaratze-data: 2016/12/14) <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/12/1605305e.pdf>.
- ii) Sendagaien aurkako erreakzioen detekzioa txosten medikuetan, lengoia naturalaren prozesamenduko teknikak erabiliz (DETEAMI, kodea 2014111003: <http://ixa.si.ehu.es/deteami>).
- iii) OSAsun txostenen KUdeaketarako laguntza sistema (OSAKU: Sistema de ayuda para la gestión de informes médicos. kodea: S-PE11UN114).
- iv) PROSA-MED: PROCesamiento Semántico textual Avanzado para la detección de diagnósticos, procedimientos, otros conceptos y sus relaciones en informes MEDicos (Kodea: TIN2016-77820-C3-1-R).

2. IXA Taldea EUSKALTZAINDIArekin ere lankidetzan ari da 2008tik Hizkuntzaren Prozesamenduko (HP) teknikak erabiliz Orotariko Euskal Hiztegia eta Lexikoaren Behatokia egitasmoan, azken honetan, Elhuyar eta UZEIrekin batera.

http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=806&Itemid=434&lang=eu.

3. IXA Taldearen eskariz, UPV/EHUko Ikerketako Errektoreordeak eta Hezkuntza Sailak EGAKo materialak lagatzeko hitzarmena sinatu dute (EBAZPENA, 2018ko abenduaren 12koa).

Horiek guztiak kontuan hartuta, IXA Taldeak duen eskarmentua eta jardun ona baliatu nahi da HABEko testu mailakatuak eta ikasleen corpusak (ariketak eta azterketak) prozesatzeko eta horiek datu-basean gorde ondoren, hizkuntza-teknologia eta hizkuntzaren prozesamenduko tresnak erabiliz, hainbat kontsulta egiteko eta ikasleen produkzio nahiz azterketen zuzenketetatik eratorri daitezkeen ikerketak sustatzeko helburu orokorrarekin. Garatzen den teknologia HABErentzat baliagarria balitz, teknologia hori erabiltzeko aukera izango luke HABEk. Esaterako, HABEko aztertzaileentzat testuaren konplexutasuna eta testuaren zenbait ezaugarri erakuts dezakeen sistema automatiko bat presta daiteke (esaterako, ikus aurrerago COMPLEXITY eta FLAIR sistemek egiten dutena euskararaz egiteko prestatuko litzateke) edo testu digitalean bertan erroreak markatze-sistema bat diseinatu (ikus aurrerago, ZUZENKO), zuzenketak egiten laguntzeko. Zuzenketak egiten laguntzeaz gain, testuinguru digitalean ondoren beraiek egin dituzten zuzenketak konparatzeko eta beraien arteko adostasunak bistartzeko sistema izango lukete; horrela, aztertzaileak akordioetara errazago heltzeko aukerak erraztuz edota hirugarren zuzenketa adostu bat egiteko modua emanez. Horrez gain, sistema horrek aztertzaileek testua markatzeko aukera izango lukete eta marka ohikoenak edota bat-etortze gehien dutenak zein diren jakiteko aukera emango luke. Etorkizunean, azterketak zuzentzeko irizpideak birdefinitu edota zenbait aztertzailearen jarduna hobetzeko sistemak proposatu daitezke, aztertzaile batek erabiltzen ez duen eta garrantzitsua den irizpidea proposatuz.

Horrez gain, IXA Taldearentzat eta UPV/EHUrentzat oso interesgarria da gaintitu/ez-gaintitu duten azterketarien ezaugarri linguistikoak zein diren aztertzea eta konparatzea; izan ere, urtero-urtero milaka ikasle matrikulatzen dira unibertsitatean eta ez dago proba objektiborik eta multifaktorialik beraien hizkuntza-maila zein den zehazteko, bai unibertsitatera sartzean, bai ikasketak bukatzean eta, beraz, zaila da testuen konplexutasuna handitzen joateko proposamenak egitea, hizkuntza-formak nabarmenduz modu masiboan feedback egokiak proposatzea edota testuen konplexutasuna handitzen doala ziurtatzeko tresnak diseinatzea, gehien behar duten ikasleei laguntzeko eta gradua amaituta C1 mailara heltzek behar duten laguntza eskaintzeko. UPV/EHU matrikulatzen diren ikasle kopurua dela eta, ikasle guztien probak eskuz zuzentzea edota fakultate bateko probak ere zuzentzea oso garestia litzateke eta horregatik proba objektiboen eta multi-faktorialen bidea aztertzea erabaki interesgarritzat jo da Bilboko Hezkuntza Fakultatean, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko eta Ikerkuntzaren arloko errektoreordetzan eta Ixa Taldean; horrela, aztertuko genuke ea posible den laguntzea gaur egun dagoen hizkuntza-teknologia erabilita asmo horietan.

Aipatu bezala, Bilboko Hezkuntza Fakultatean ikasle guztiei bi proba egiten zaizkie, sarrerako proba lehenengo ikasturtean eta irteerako proba azken ikasturtean. UPV/EHUrentzat interesgarria litzateke ikasle horiek monitorizatzea (IXA Taldean garaturiko IRAKAZI bezalako sistemaren batekin) eta zein maila duten jakitea proba objektiboak eta automatikoak erabiliz. Monitorizazio hori HABEk HEOCen proposatu dituen irizpideei jarraituz egingo da, ondoren sortzen diren tresna eta baliabideak berrerabiltzeko edota HABEn bertan tresnak inplementatzeko aukera izateko.

Ikerketa horiek egin dira auzo hizkuntzetan eta baliabide interesgarriak garatu dira, alemanierarentzat eta ingelesarentzat (besteak beste), honakoak dira horietako batzuk aipatzearren:

- VIEW: ikasleak sarean dagoen edozein testutan ariketa automatikoak egiteko, hizkuntza anitzetan: <http://sifnos.sfs.uni-tuebingen.de/VIEW/index.jsp?content=home>
- FLAIR: testu idatzien azterketa multifaktoriala egiteko sistema eta emaitzak bistarako eta konparatzeko sistema erabilerraza <http://sifnos.sfs.uni-tuebingen.de/FLAIR/>
- CTAP: corpusak kudeatu, azterketa multifaktorialak diseinatu eta emaitzak bistarako web zerbitzu osoa <http://purl.org/ctap>.
- Complexity: ikasleak bere testua igo eta hizkuntza konplexuagoa duen irakurgaiak lortzeko: <http://sifnos.sfs.uni-tuebingen.de/SyB-0.1/>.
- Coh-Metrix (<http://tool.cohmetrix.com/>) baliagarria da, adibidez, testuen kohesioa eta koherentzia-neurriak konputatzeko, edo Text Inspector (<http://www.textinspector.com/>), ingelesezko testuen zailtasun-maila aztertzekeo tresna da, maila jakina eta deskribapen interesgarriak ematen dituelarik.

Bestalde, auzo-hizkuntzetan dauden testu analisirako tresna automatiko horiek baliagarri izango dira euskara aztertzen duen teknologia garatzeko eta honako tresnak hobetzeko eta modu erabilgarrian eta irakasleentzat egokia den erara ekartzen joateko. Esaterako, tresna hauek aipatuko genituzke: XUXEN zuzentzaile ortografikoan zuzenketa gramatikalak gehitzeko edo IDAZLAGUN edo **AZPidazki1** (Elhuyar) bezalako tresnak garatzeko edo hobetzeko. Horrez gain, IKASBIL atariko testu mailakatuak erabil daitezke FLAIR bezalako tresna bat euskaraz garatzeko eta ikasle bakoitzari analisi multifaktorialean oinarrituriko irakurgai egoki bat emateko. Horrela, ikasleak hizkuntza fenomenoren bat erabiltzen ez badu, fenomeno horretan aberatsak diren testu mailakatu zerrenda emango zaio, berak bere interesen arabera egokiena aukeratu dezan.

Laugarren. Testuak on-line sistema batekin zuzentzeak hobekuntzak dakartzan aztertuko da eta tresna hori garatuko balitz, alde aurretik IXAn garatu diren tresnak egokitu eta garatu daitezke, HABEn zuzenketa bikoitzak bistaratzeko eta ez-adostasun kasuak errazago bistaratzeko eta adostasun kasuetara errazago heltzea. Izan ere, testu bera zuzentzaile batek baino gehiagok zuzendu duenez, zuzenketa digitalak egindako zuzenketak konparatzeko eta bistaratzeko zenbait abantaila ematen du. Horrez gain, adostasun neurriak automatikoki kalkula daitezke zuzenduriko itemetan oinarrituta, zuzentzaile jakin batzuen zuzenketak ikus daitezke eta erabiltzen diren itemak, maiztasunaren arabera deskriba daitezke. Sistema hori irudien gainean sor daitekeenez, ez dago arazorik eskuizkribuekin ere lan egiteko, nahiz eta komenigarria litzatekeen OCR bidezko testu irakurgarriaren gainean egitea.

Bilboko Hezkuntza fakultateak ere ikasleak idatzizko eta ahozko probak jasotzeko sistema bat du eta zenbait urtetako corpora bildu du.

1 <http://azpidazki.ehu.eus/azpidazki/>

Horrez gain, IXA-CLARIN-R Centre delakoan oinarritzko tresna bat garatu da: ANALHITZA. Nahiz eta tresna hori ez den egokia hizkuntzaren analisi multifaktorialerako, tresna horrek euskarazko testuetatik maiztasunetan oinarrituriko informazio linguistiko hauek erauzten ditu: hitzak edo lemak eta beraien maiztasunak, izenak, adjektiboak eta hitz-sekuentziak, besteak beste, eta etorkizunean beste fenomeno batzuen berri emango du. Informazio horren emaitzak kalkulu-orrian ematen ditu, erabiltzaileak modu errazean moldatu ahal izateko emaitza horiek (<http://ixa2.si.ehu.es/clarink/analhitza.php?lang=eu>). ANALHITZAren zenbait funtzio, AZPidazkin txerta litezke eta ikertu daiteke ea sistema horrek zenbateraino laguntzen dion azterketa zuzentzaileari.

Bosgarren. Mikel Iruskietak jaunak Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasleak eta IXA Taldeko ikertzaileak honako lan hauek koordinatuko lituzke: aztertzea ea nola txerta daitezkeen HABEko irizpideak eta hizkuntzaren prozesamenduko irizpideak garatuko diren tresnetan, irakurgai mailakatuak eta ikasleen produkzioa (azterketa zuzenduak) datu-basean jarri eta analizatu edo prozesatu, datu horiek ustiatuz ebaluazio-ataza automatikoak modu kualitatiboan eta kuantitatiboan ebaluatzeko eta hobetzeko.

Lan guzti hori IXA-CLARIN R-Centreko helburuen barruan dago: hizkuntza-teknologietako hainbat tresna edo ikerketa sortzea nahiz garatzea, Humanitate Digitalen eta Zientzia Sozialetako ikerketan lagungarri izateko (ikus <http://ixa2.si.ehu.es/clarink/index.php?lang=eu>).

Aurreko puntuetan adierazitakoa kontuan hartuta, UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordeak eta HABEk

ADOSTEN DUTE

Lehenengoa. Hitzarmenaren helburua

Dokumentu honen xedea da arautzea HABEren eta UPV/EHUren arteko hitzarmena (azken honen kasuan, Ikerketa Errektorearen bidez), HABEko ataza zehatz batzuetan lagun daitekeen aztertu, corpusak digitalizatu eta prozesatu, ebaluazio-ataza batzuk modu kualitatiboan eta kuantitatiboan ebaluatzeko datuak esploratzeko baliabideak sortzea.

Garatuko diren tresna horiekin corpuseko eta ikasle-moten arabera hiztegiak, axaleko erroreak eta forma linguistiko nagusiak (automatikoki detektatu daitezkeenak) deskribatzeko aukera bermatzen duen aztertuko da, baita azterketari bakoitzaren garapena bistaratzeko eta aztertzekeo deialdi ezberdinetan.

Orohar, honako lanen bideragarritasuna aztertuko da:

HABEren egitasmo honen partaidetzak lan-lerro hauek izango lituzke:

1. UPV/EHUko ikertzaileen esku jarriko ditu helburu nagusietara iristeko datu baseak sortzeko beharrezko dituzten HABEren artxiboak.

2. Egitasmoaren jarraipena egiteko, HABEko bi teknikari izendatuko ditu.
3. HABEko Q87 aplikazio informatikoan dituen datu-baseak ere ikertzaileen eskuragai jarriko ditu.
4. HABEko bideratuko du egitasmo honen helburuak egoki eta zuzen lor daitezen, ikertzaile eta euskaltegi-tako ordezkarietako harreman modua.

UPV/EHUko IXA Taldeak honako tresna hauek euskara ekar daitezkeen aztertuko da HABEren irizpideak eta IKASBIL atariko testu mailakatuak kontuan hartuz:

1. VIEW: ikasleak sarean dagoen edozein testutan ariketa automatikoak egiteko, hizkuntza anitzetan: <http://sifnos.sfs.uni-tuebingen.de/VIEW/index.jsp?content=home>
2. FLAIR: testu idatzien azterketa multifaktoriala egiteko sistema eta emaitzak bistarako eta konparatzeko sistema erabilerraza <http://sifnos.sfs.uni-tuebingen.de/FLAIR/>
3. CTAP: corpusak kudeatu, azterketa multifaktorialak diseinatu eta emaitzak bistarako web zerbitzu osoa <http://purl.org/ctap>
4. Complexity: ikasleak bere testua igo eta hizkuntza konplexuagoa duen irakurgaiak lortzeko: <http://sifnos.sfs.uni-tuebingen.de/SyB-0.1/>
5. Tresna horiek moldatu IXA Taldeak sorturik ANALHITZA programa nola aberastu daitezkeen eta hori ikasleak xx egiteko nola erabil daitezkeen aztertuko da: <http://ixa2.si.ehu.es/clarink/analhitza.php?lang=eu>
6. Bestalde, ahozko testuak transkribatu eta aipaturiko tresnetan nola egokitu daitezkeen aztertuko da UPV/EHUko AHOLAB taldearen teknologia eta lankidetzak koordinatuz.

Bigarrena. Bitarteko materialak eta baliabide pertsonalak.

Helburuak bete ahal izateko, HABEren aldetik, aldeztu aurretik aipatutako baliabide hauek beharko dira:

1. Datu-baseak sortzeko beharrezko dituzten HABEren artxiboak.
2. HABEko bi teknikari.
3. HABEren laguntza ikertzaile eta euskaltegi-tako ordezkarietako harremanak bideratzeko.

UPV/EHUren aldetik honako baliabideak jarriko dira:

1. IXA ikerketa taldeko bi hizkuntzalari eta informatikari bat, hirurak doktoreak. IXA Taldeko koordinatzailea Mikel Iruskieta izango da.
2. IXA taldeko ikerlari bat tesia egiten, baldin eta horretarako finantziarioa lortzen den eskatu dugun ITN proiektuan edo beste deialdi batean.
3. IXA taldeko azpiegitura (makinak eta zerbitzariak) eta CLARINen teknologia: <https://www.clarin.eu/>.

4. Bestelako (euskal zein nazioarteko) erakundeekiko lanak eta harremanik egin beharko balitz, horiek guztiak IXA taldeak koordinatuko ditu, ikerketa-proiektuen bidez.

Bestalde, Lengoaia eta Sistema Informatikoak (LSI), Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika (HLD) eta Komunikazioen Ingenieritza (KI) sailtako ikertzaileen parte-hartzea izango du, baita UPV/EHUko Hezkuntza Fakultateetako irakasleena edo beste sailena hala erabakiko balute. Horrez gain, UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izaten jarraituko luke.

Hirugarrena. Datuen azterketa eta zabalkundea

IXA Taldeak ikerketan lortu dituen emaitzen berri izango du HABEk, baita sortu diren tresnak eta ondorioak erabiltzeko aukera ere.

Laugarrena. Datuen bilketa

Mikel Iruskieta jaunak koordinatuko duen lan-taldeak datuen konfidentzialtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

Horretarako:

- 1) Ikerketan esku-hartzen duten kide guztiek konfidentzialtasun-konpromisoa izenpetuko dute.
- 2) Jasotako testu edo dokumentu guztiak anonimizatuko dira eta pertsona identifikatzeko erabiliko den informazioa enkriptatua egongo da.

Bosgarrena. Datuen kudeatzea eta analisi estatistikoa

IXA Taldeak informazioaren konfidentzialtasuna eta HABEk darabilen enkriptazioa erabiliko du edo bestela parte-hartzaileen anonimatua bermatuko duen kodifikazio-sistema egiteko konpromisoa hartzen du.

Seigarrena. Tresnen jabego intelektualak

Egitasmo honetan sortutako eta egokitutako tresnen jabegoa UPV/EHUri dagokio, betiere tresna horiek sortu dituzten ikertzaileen egiletza aitortuz. Era berean, UPV/EHUri dagozkio sortutako eta egokitutako tresnen ustiapen-eskubideak; ez, ordea, tresnok garatzeko HABEk entregatutako fitxategi eta datu-baseena. Hala ere, proiektuan parte hartzen duten ikertzaileek eta beste partaide guztiek eskubidea izango dute proiektuaren ikerketari eta jardueri buruzko informazioa aldizkari zientifikoetan zabaltzeko, betiere UPV/EHUri baimenarekin. HABEk, bere aldetik, modu askean eta doan erabili ahal izango ditu egitasmoan garatutako tresnak, erakundeari egotzitako helburuak eta

eginkizunak betetzeko eta bere webguneetan euskara-ikasleek erabiltzeko moduan inplementatzeko.

Zazpigarrena. Corpusak sortzea eta datu-basean gordetzea

HABEko azterketek balio handia dute eta hizkuntzaren prozesamendurako oso garrantzitsuak izan daitezke. Horretarako, HABEk dituen corpusak zein diren aztertuko da (ahozkoa eta idatzizkoa) eta baliagarriak diren azterketa-motak gordeko dira.

Horiek kontsultatzeko datu-baseak sortuko dira eta datu-baseak egokituko dira modu errazean kontsultatzeko tresnak sortuz.

Zortzigarrena:

IXA Taldeak HABEri bere helburuetan eta lanean baliagarri zaion informazioa emateko konpromisoa hartzen du akordio honetatik sortutako baliabideei dagokionez. Era berean, HABEk antolatzen dituen mintegietan eta jardunaldietan parte hartzeko konpromisoa hartzen du, beti ere IXA Taldeko kideen espezialitatera mugatzen diren heinean.

Bederatzigarrena. Intereseko bete ohar batzuk

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeko 50.1 artikulua ezartzen duenari lotuz, hitzarmen honen xedeko zerrenda eta jarduerak ez dira kontratua gure ustez, kontuan hartuz aldeek interes bateratuak dituztela, haiek hartutako konpromisoak eta elkarren lankidetzak.

Hamargarrena. Hitzarmenaren ondorio ekonomikoak

Hitzarmen hau finantzen aldetik jasangarria da, bi aldeek gaitasuna baitute hartutako konpromisoak finantzatzeko (40/2015 Legeko 48.5 artikulua), ez du inplikatzeko inolako kontra-prestazio ekonomikorik, eta alde biek hitzarmen hau honako helburuarekin izenpetzen dute: izaera zientifiko eta soziala duen ekarpena burutzea, zehazki euskal hiztun gehiago lortzeko eta kalitatea hobetzeko HABEko atazak hobetzeko asmoarekin euskara prozesatzeko tresnak garatzeko eta horiek jendartearen esku uzteko helburuarekin.

Hamaikagarrena. Jarraipen batzordea

Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Hauek osatuko dute batzordea: UPV/EHUren ordezkari bat (Mikel Iruskietak jauna), eta HABEren ordezkari bat Eskarne Lopetegi Zalakain. Batzorde horren egitekoa izango da hitzarmen hau gauzatu bitartean Hitzarmenaren interpretazioari eta betetzeari buruz sor litezkeen arazoak ebaztea.

Hamabigarrena. Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmen honen iraupena lau urtekoa izango da, sinatzen den egunetik hasita. Epe horren ostean, hitzarmenean zehaztutako eginkizunak oraindik amaitu gabe geratzen badira, berriztatua izan daiteke, gehienez ere beste lau urtez.

Hamahirugarrena.- Hitzarmena bukatzeko eskatzea

Hitzarmenarekin bukatu nahi bada, alderdi batek beste alderdiari idatziz jakinaraziko dio bukatutzat emango duen eguna baino bi hilabete lehenago. Hori gertatzen bada, abian dauden ekintzak amaitu egin beharko dira.

Hamalauugarrena. Gatazkak konpontzea

Alde biek hitz ematen dute hitzarmen hau garatzean sor litezkeen desadostasunak adiskidetasunez konponduko dituztela. Hori guztia horrela izan arren, bidezkoak iruditzen diren errekursoak aurkeztu ahal izango dira jurisdikzio eskudunean.

Eta bi aldeek, guztiarekin ados dauden seinale, Lankidetzak Hitzarmen honen bina ale sinatu dituzte, goiburuan agertzen diren lekuan eta egunean.

**UPV/EHUko Ikerketaren arloko
Errektoreordea**

**Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailburua**

D. José Luis Martín González

D. Bingen Zupiria Gorostidi

Sin.

Sin.